



UDALBURUA

Gentza Alamillo Udaeta jn.

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo Vadillo jn.

José Antonio Bartolomé Pesquera jn.

Montserrat Angulo Solloa and.

Susana Martín Benavides and.

Josu Artetxe Arana jn.

Nerea Goti Valle and.

Lauren Uria Peña jn.

Esteban Hernando Landa jn.

Iratxe Parro Uzquiano and.

Iraida Saenz de Lafuente and.

**AIARAKO UDALAK 2019ko MARTXOAREN 21ean
EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.**

Arespalditzan, udaletxeko bilkura-aretoan, bi mila eta hemeretzi martxoaren hogeita batean, hemeretziak eta lau minutu direnean, Udalbatza bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da mahaiburua, eta albo batean aipatutako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46.b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, M^a del Carmen Rojo Pitillas idazkari andreak, lagundu ditut.

IDAZKARIA

M^a Del Carmen Rojo Pitillas and.

Alkate jaunak osoko bilkurara ongietorria eman die denei, eta besterik aipatu gabe EGUNEKO AZTERGAIEN ZERRENDAKo gaiak bozkatu eta eztabaidatu dira:

1º.- Onestea, bidezkoa bada, 2019ko otsailaren 21ean eginiko ohiko bilkuraren akta.- Jarraian, Udalbatzari 2019ko otsailaren 21ean egindako ohiko bilkuraren aktaren berri eman zaio.

Ez du inork hitz egin eta, beraz, akta hori aho batez onartu da.

2º.- Onestea, bidezkoa bada, 2019ko ekitaldirako udal aurrekontua.- Jarraian, 2019ko ekitaldirako Aiarako udal aurrekontuaren inguruko txostenaren berri eman zaio Udalbatzari. Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ/PNV) azalpen labur bat eman du aurrekontu hori integratzen duten aurrekontu-aplikazioen inguruan.

Aurrekontu proiektua Ogasuna, Funtzio Publikoa, Barne erregimena eta Kontuak Informazio-batzordean ikusi zen, 2019ko otsailaren 12ko ohiko bilkuran. Talde politikoei 2019ko martxoaren 5era arteko epea eman zitzaizen zuzenketak aurkezteko aipaturiko proiektuari, 2019rako aurrekontuena, egokia iruditezkotan.

Espedientean dago AIARA BATUZ talde politikoak aurkeztutako zuzenketa 2019ko martxoaren 5eko 794 zk. sarrera-erregistroarekin; 43.000,000 euroko zuzenketa bat proposatzen da bertan, honako finantzazioarekin:

GASTUA (-)

DIRU-SARRERA (+)

PARTIDA	ZENBATEKOA	PARTIDA	ZENBATEKOA
330.22611	-5.000,00 €	920.141000	+43.000,00 €

920.227002	-15.000,00 €		
150.421000	-20.000,00 €		
929.500000	-3.000,00 €		

Zuzenketak aurkezteko epea igarota, berriro eraman da aurrekontu proiektua Ogasuna, Funtzio Publiko, Barne Erregimena eta Kontuak Informazio-batzordearen txostenera, 2019ko martxoaren 12an egindako ohiko bilkuran. EAJ/PNV taldeko ordezkarien aldeko botoa eta EH-BILDU eta AIARA BATUZ taldeetako ordezkarien abstentzioa jaso du; ondorioz, atzera bota da, adierazitako arrazoiengatik AIARA BATUZ taldearen zuzenketa, eta 2019rako udal aurrekontuaren proiektuaren onespeneraren aldeko txostena egin da, aurkeztu zen bezalaxe.

Iraida Sáenz de Lafuente Blanco zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) hartu du hitza, eta aurkeztu duten zuzenketa azaldu du. Adierazi du beharrezko ikusten dutela Udaleko Administrazio batzarrei administratiboki lagunduko dien pertsona teknikari bat, lanaldi erdian, aholkatzeko eta espedienteekin laguntzeko: gero eta konplexuagoak diren pleguekin, kontratuekin, fakturazioekin, etab. Halaber, murriztu daitezkeen partidak ere badaudela uste dute, patroiarren festak esaterako, Aiarako Kuadrillari laguntza urbanistikoagatik ordaintzen zaion zenbatekoa, edo, kontratazioak dakartzan partidak, Herri Administrazioetako Kontratuen Legeak xedatu moduan gauzatzen ez badira, 15.000,00 euroko gastu-muga dutenak, eta kreditu globalaren hornidura. Adierazi dute, Batzordean, euren zuzenketa gaitzetsi egin behar zela esan zen arren, idazkariak azaldu zuenez, ezin da existitzen ez den plazarik bete, horretarako beharrezkoak izanik aurretik zenbait izapide, lanpostuen zerrendan aldaketak egitea, esaterako. Bere taldeak aurrekontuaren aldeko botoa emango du, plaza eratzeko konpromezua dagoelako. Gehitu du administrazio batzarrek jaso behar duten zenbatekoak eguneratzea adostu zela, udala finantzatzeko, pasa den urtean egin zen bezala.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ/PNV) erantzun du idazkariak, batzordean, teknikari plaza eratzeko, aurretik gauzatu beharreko izapideak jakinarazi zituela, eta momentu hauetan, AIARA BATUZ taldearen zuzenketa onartzea eragozten dutenak; hala ere, plaza hori sortzearekin guztiz ados daudela esan du, baina ez lanaldi erdian, lanaldi osoan baizik, administrazio batzarrei laguntza emateaz gain, udaleko bulegoen lan zati bat arindu dezan. Adierazi du, batez ere, idazkaritzak behar duela lan karga hori arintzea, pleguak gauzatzea eragozten baitio, indarrean dauden kontratazioak, iragartzea beharrezkoa dutenak, legezatzeko. Gehitu du administrazio langileen eta idazkaritzaren arteko figura bat behar dela, falta dagoen egoeretan ordezkatzeko.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ/PNV) azaldu du, Batzordean, Iraida Sáenz de Lafuente Blanco zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) galdetu zuela noiz egin behar zen errepideetako bigarren zaborra kentzea, eta indarrean dagoen kontratua amaitu arte itxaron behar zela erantzun zitzaion, aukerarik ematen ez duena bigarren zaborra kentze bat gauzatzeko; berriro lizitatzen denean aztertuko da, gauzatzeko baldintza zehatzak ezarriz.

Lauren Uria Peña zinegotzi jaunak (EH-BILDU) hartu du hitza, eta azaldu du bere taldeak aurrekontuen aurkako bozka emango duela, gainerako ekitaldien aldean, lehen hiru hilabetean aurkeztu den arren, Obren kapituluaren eginiko aldaketa gutxiez gain, nahiko aurrekontu "laua" delako, eta gizarte gastuetan gehiago inbertitu beharko litzatekela esan du. Adierazi du aurrera pausoak eman direla berdintasunaren gaian eta horrek gai soziala tapatzen duela, hori ere aurrera egitea beharrezkoa den gaia. Jarraitu du, azalduz, beste ekitaldi batzuetan zuzenketak aurkeztu dituztela, batzuk onartuak izan zirela eta beste batzuk ez, baina uste zutela AIARA BATUZ taldeak aurrekontuen alde egingo zuela. Gehitu du badirela eskatu diren gaiak baina garatu ez direnak, euskararen doako ikaskuntzaren antzera; eta ibilbideen seinaleztapena bezalakoak ez direla adostuta egin. Jarraitu du, adieraziz, talde politikoen arteko harremanean

gobernu taldeak informazioa puntu batera arte bakarrik adierazten zuela, eta hori akats bat dela. Amaitzeko, azaldu du, laburbilduz, aurrekontuen aurka bozkatuko dutela, eta gizarte gaien aurrekontu handiago bat egin beharko litzatekela.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ/PNV) erantzun du, ez dagoela batere ados gizarte gaiaren aurrekontuko baliabide faltarekin, EH-BILDU taldeko ordezkariak azaltzen duen bezala. Adierazi du, legealdiaren hasieran Gizarte Zerbitzuen sailean laguntzaile bat zegoela sei hilabetez lanaldi erdian, gero urte osora luzatu zen lanaldi erdiko kontratua, eta orain, urte osoan lanaldi osoan dabil pertsona hori. Beste alde batetik, orain aste osoan zehar (lanaldi erdian izan ezik) daukagu udalari zuzentzen zaion Gizarte Langilea. Gehitu du Gizarte Ongizateko itxaron-zerrenda nabarmen murriztu dela, eta horrek guztiak, baliabideak Gizarte Ongizatera zuzentzea dakarrela; alkate jaunak jarraitu du, azalduz, Genero indarkeriaren Plan bat gauzatu dela, eta Emakumeen Gela sortu dela. Adierazi du, horregatik guztiagatik, gobernu taldeak ez duela obrak egitean bakarrik pentsatzen, bere aldetik, axolagabekeria izango litzatekela diruz ez laguntzea Foru Plana zein udalarentzat onuragarri izan daitezkeen Obra txikien Planen diru-laguntza deialdiak. Amaitu du, esanez, hirugarren adinean ere inbertitu direla baliabideak jarduera gehiago eskainiz, egoitzaren obretan ere parte-hartu zela, etab. eta indarrean dela Enplegua Sustatzeko Ezohiko Plan bat, eskatu den diru-laguntzaren bitartez. Horregatik, adierazi du ez dagoela ados EH-BILDU taldeak planteatutakoarekin; izan ere, aurrekontuan ez du zuzenketarik aurkeztu.

Lauren Uria Peña zinegotzi jaunak (EH-BILDU) adierazi du ez duela esaten pertsonetan inbertitzen ez denik, zabalagoa izan behar dela eta erronka berriak onartu behar direla. Geldirik geratu dena Promozio Ekonomikoko Batzordea dela adierazi du; azaldu du badugula poligono bat, baita Tokiko Garapen Agentzian ordezkariak, eta tokiko garapenerako sortutako proiektuetan parte hartu beharko genukela, aurrera pausoak emanaz. Tekniko plazari dagokionean, eztabaida zabala eskatzen duela azaldu du, aholkularitza kontratu ezberdinak daudelako eta noraino helduko den zehaztu behar dela.

Iñigo Pinedo Vadillo zinegotzi jaunak (EAJ/PNV) azaldu du lanpostuen zerrenda onesten denean zehaztuko direla teknikari plazari dagozkion zereginak, baina oso garrantzitsua dela idazkariaren ordezkapena betetzea.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) adierazi du, eurek lanaldi erdirako pertsona bat proposatzen zutela, administrazio batzarrei laguntzeko xedearrekin gauzatzen ari den araudi aldaketa handiagatik, gainezka egiten diena eta lehentasuna duena, beste zeregin batzuk hartu ahal izateko, kalterik egin gabe.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ/PNV) azaldu du zereginak batzordean eztabaidatu eta zehaztuko direla eta administrazio batzarren lanak gorabeherak izaten dituela garaiaren arabera, plazari beste zeregin batzuk jartzea ahalbidetzen duena.

Josu Artetxe Arana zinegotzi jaunak (EH-BILDU) azaldu du, ados dagoela Lauren Uria zinegotzi jaunaren planteamenduarekin eta, gehitu du, udaleko talde politikoen arteko harremanek, berak konpartitzen ez duen egiteko modu bat islatzen dutela; bide berdeen kudeaketan azaldu zen bezala, eurek osasunaren ikuspuntutik proposatu zutela Malato zuzentzearen gaia, edo euskararen irakaskuntza ehuneko 100ean diruz laguntzeko proposamena. Gizarte gaiari dagokionean, adineko pertsonen kasuan irudimena behar dela eta horiengan eragin erreala duten jarduerak gauzatu behar direla adierazi du, eta hori ez dela ikusten. Amaitzeko, esan du, udaleko langileak areagotzeari dagokionean, denon artean ikusi eta aztertu behar dela, eta bere zereginak, soldatak, etab. zehaztu. Amaitzeko, desadostasuna adierazi du, antzematen duen jarrera dela eta, ez baita parte-hartzailea.

Parte-hartze gehiagorik ez dagoenez, Batzordeak erabaki du, EAJ/PNV taldeko kideen eta AIARA BATUZ taldeko kideen aldeko botoarekin, eta EH-BILDU taldeko kideen aurkako botoarekin, honakoa adostea:

Lehenengoa.- Gaitzestea, azaldutako arrazoiengatik, AIARA BATUZ taldeak aurkeztutako aurrekontuaren zuzenketa, eta lanpostuen zerrenda aldatzera konprometitu da teknikari plaza berri bat eratzeko, bere zeregina izango duena, beste lan batzuen artean, administrazio batzarrei beren kudeaketetan laguntzea.

Bigarrena.- Hasiera batean onestea 2019 ekitaldirako udalbatza honen aurrekontu orokorra, 2.365.389,62 eurokoa, diru-sarreraren zein gastuen egoerari dagokiona. Hona hemen kapituluaren laburpena:

KAPITULUA	DIRU-SARREREN HASIERAKO AURREIKUSPENAK KAPITULUKA	ZENBATEKOA €
	A) OPERAZIO ARRUNTAK	2.314.893,12 €
1	ZERGA ZUZENAK.....	677.502,40 €
2	ZERGA EZ-ZUZENAK.....	30.000,00 €
3	TASA ETA BESTELAKO DIRU-SARRERAK.....	238.250,00 €
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK.....	1.351.300,77 €
5	DIRU-SARRERA PATRIMONIALAK.....	17.839,95 €
	B) KAPITAL OPERAZIOAK	50.396,50 €
6	INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANATZEA ETA BESTELAKO HIRIGINTZAKO DIRU-SARRERAK.....	0,00 €
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK.....	50.396,50 €
8	AKTIBO FINANTZARIOAK.....	0,00 €
9	PASIBO FINANTZARIOAK.....	0,00 €
	DIRU-SARREREN AURREKONTUA GUZTIRA.....	2.365.289,62 €

KAPITULUA	GASTUEN HASIERAKO KREDITUAK KAPITULUKA	ZENBATEKOA €
	A) OPERAZIO ARRUNTAK	2.067.281,15 €
1	PERTSONAL GASTUAK.....	590.395,23 €
2	ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUAK EROSTEA.....	759.945,30 €
3	FINANTZA GASTUAK.....	2.000,00 €
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK.....	709.440,62 €
5	KREDITU GLOBALA ETA BESTE EZUSTEKOAK.....	5.500,00 €
	B) KAPITAL OPERAZIOAK	298.008,47 €
6	INBERTSIO ERREALAK.....	228.008,47 €
7	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK.....	70.000,00 €
8	AKTIBO FINANTZARIOAK.....	0,00 €
9	PASIBO FINANTZARIOAK.....	0,00 €
	GASTUEN AURREKONTUA GUZTIRA.....	2.365.289,62 €

Hirugarrena.- Onestea aurrekontuaren espedientean dagoen Aurrekontua Gauzatzeko Udal Araua.

Laugarrena.- Onestea aipatutako espedientean jasota dauden eta aurrekontuari laguntzen dioten lanpostuen zerrenda eta gainerako eranskinak.

Bosgarrena.- Onestea Diru-laguntzen Plan Estrategikoa.

Seigarrena.- Espediente hori jendaurrean ikusgai jartzea, hamabost egun balioduneko epean, erreklamazioak aurkeztu daitezzen, 3/2004 Foru Arauaren 15. artikuluan ezarritako moduan eta epeetan.

Zazpigarrena.- Aurrekontua behin betiko onetsiko da adierazitako epean erreklamaziorik aurkeztu ezean. Kontrako kasuan, Osoko Batzordeak hilabete bateko epea izango du horiek konpontzeko.

Zortzigarrena.- Behin betiko onetsitako espedientea argitaratuko da 3/2004 Foru Arauaren 15. Artikuluko 3 atalean xedatzen den moduan.

Bederatzigarrena.- Behin betiko erabakiarekin batera, erakunde honen lanpostuen zerrenda argitaratzea, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak 16. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Hamargarrena.- Aldi berean, espedientearen kopia bana igortzea Arabako Foru Aldundiari eta Arabako Ekonomia eta Ogasun Ordezkaritzari.

3º.- 2019ko kredituen judizioz kanpoko aintzatespenaren 3. espedientea.- Jarraian, idazkari kontu-hartzailearen 2019ko martxoaren 7ko txostenaren berri emango zaio Udaltzari. Honela dio:

"IDAZKARI KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENA KREDITUEN JUDIZIOZ KANPOKO AINTZATESPENAREN 3/2019 ESPEDIENTEARI DAGOKIONEAN.

Gaia: Kredituen judizioz kanpoko aintzatespenaren espedientea. 3/19 zenbakia. Aurrekontuaren Ekitaldia.

Aiarako Udaleko Idazkari Kontu-hartzailearen karguari datxezkion atribuzioei dagokionean, eta estatu-gaikuntza duten Funtzionarioen Araubide Juridikoko Araudia onesten duen irailaren 18ko 1174/87 Errege Dekretuan ezarritakoari, jarraiki, honako IDAZKARI KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENA igorri da aurreko ekitaldien fakturen judizioz kanpoko aintzatespenaren gainekoa:

1.- AURREKARIAK

Udalean 2019ko martxoaren 5eko sarrera datarekin, AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEAK 1 000436 zk. faktura aurkezten du 1.735,14 eurokoa (% 21 BEZ barne), "Zaraube Herriak Aldizkariaren hedapena, 2018ko iraila" kontzeptuarekin, dagokion ekitaldian aitortu eta onetsi ez dena.

2.- OINARRI JURIDIKOAK

Martxoaren 5eko Legegintzako 2/2004 Errege Dekretuaren 176.1. artikulua, Toki-ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina onartzen duena. "1. Aurrekontu bakoitzaren gastuen egoeraren kredituei karguarekin soilik aurrekontu ekitaldiari dagokion urtean burututako erosketetatik, obretatik, zerbitzuetatik eta gastuetatik datozen obligazioak hartu daitezke.

Halaber, apirilaren 20ko 500/1990 Errege Dekretuko 26. artikulua, zeinaren bidez 39/1998ko seigarren Tituluko lehenengo Kapitulua garatzen den, abenduaren 28koa, Toki-ogasunak arautzen dituena, aurrekontuei dagokienez honakoa ezartzen du:

“1. Aurrekontu bakoitzaren gastuen egoeraren kredituei karguarekin soilik aurrekontu ekitaldiari dagokion urtean burututako erosketetatik, obretatik, zerbitzuetatik eta gastuetatik datozen obligazioak hartu daitezke. (157.1 artikulua, **LRHL**).

2. Hala ere, aurreko atalean adierazi bezala, hauek onartzeko momentuan indarrean dagoen aurrekontuaren kredituei aplikatuko zaizkie honako betebeharrak:...

c) Errege Dekretu honen 60.2 artikulua erreferentzia egiten die aurreko ekitaldietatik datozen betebeharrei”

Aipatutako Errege Dekretuko 60.2 artikulua ezartzen du entitatearen batzordeari dagokiola kredituen epaiketarik kanpoko onarpena, aurrekontu zuzkidurarik ez dagoenean, betiere.

Bestalde, azaroaren 28ko 2568/86 Errege Dekretuko 50.12 artikulua, zeinaren bidez erregulatu den Toki-erakundeen Antolakuntzaren, Funtzionamenduaren eta Erregimen Juridikoaren Erregelamenduak, beste funtzio batzuen artean, Udalbatzari kredituak epaiketarik kanpo onartzeko eskumena ematen dion

Beste alde batetik, eta **udaleko kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren barne kontrolaren funtzioaren arabera**, esku-hartze horren aldetik, udalbatzari azaldu zaio **faktura horri jarritako eragozpena**, legera egokitutako eta indarrean dagoen kontraturik ez dagoelako, ezta prestazio hori babestuko duenik ere. Bere garaian, kontratu txiki bat formalizatu zen (266 zk. Alkatetza Dekretuaren bitartez, 2014ko uztailaren 7koa, urteko 10.116,00 eurokoa, 1.24,36 euroko BEZarekin), 3/2011 Araubideko Errege Dekretuko 23.3 artikulua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko testu batgina onartzen duenak (une horretan aplikagarria zen araubidea eta orain indargabetua), xedatzen zuen **“138.3 artikuluan definitutako kontratu txikiak ezingo dute urte bete baino gehiagoko iraupena izan, ezta luzapenik egin ere”** (azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 29. artikuluan xedatzen den araudiaren baliokidea, Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzen dituen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauak). Beste alde batetik, kontratu txikiak ezin du prestazio errepikakorrik izan, urtez urte erakunde kontratatzailearen behar berdinari erantzuten diotenak, kasu hauetan kontratazioak planifikatzeko eta prozedura arrunten bidez gauzatzeko aukera dagoelako. Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da lizitazio horren berehalako deialdia egitea, indarrean dagoen kontratuzko legediarekin bat datorren prozedura baten bidez.

2018ko irailaren 30ko 1 000436 zk. fakturari dagokion prestazioa, “AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEA”rena, 1.735,14 eurokoa (% 21 BEZ barne), burutu egin da.

Hori da jakinarazi den guztia, eta aurrekoaren arabera, udalbatzak egokia deritzon erabakia hartu beharko du.

Ontzat eman da informatzea, Arespalditzan. – Idazkari-Kontu-hartzailea.”

Idazkari-Kontu-hartzaileak hartu du hitza, eta adierazi du eragozpenak, legera egokitzen den, indarrean dagoen eta aztertutako fakturan zehazten den prestazioa babesten duen kontratu baten faltari erantzuten diola, nahiz eta udal organo bakarrak ere ez duen horren inguruko desadostasunik azaldu. Hala ere, egoera horregatik, lizitazioaren berehalako deialdia egitea proposatzen du, indarrean dagoen kontratuzko legediarekin bat datorren prozedura baten bidez. Adierazi du udaleko kontratu guztiak gainbegiratzen ari direla beharrezko diren lizitazioak deitzeko, baina baliabide pertsonalen eskasia dela eta, oraindik ez da posible izan legezkoak diren lizitazio guzti horien deialdiekin hastea.

Gai hau Ogasuna, Funtzio Publikoa, Barne Erregimena eta Kontuak Informazio-batzordearen irizpenera eraman zen, 2019ko martxoaren 12an egindako ohiko bilkuran, eta bere aldeko txostena egin zen.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta aho batez, bozketa arruntaren bidez, ERABAKI DU:

a) Idazkari-Kontu-hartzaileak jarritako oztopoa kentzea, eta horrenbestez, kredituaren judizioz kanpoko aintzatespeneko 3/2019 espedientea onestea, 2019ko irailaren 30ean AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEAren 1 000436 zk. fakturarena, 1.735,14 eurokoa (% 21 BEZ barne), “Zaraube Herriak Aldizkariaren hedapena, 2018ko iraila” kontzeptuarekin jaso, eta udalean 2019ko martxoaren 5eko sarrera-data duena.

b) Kontratu horren lizitazioa deitzea dagozkion pleguak gauzatu ostean.

4º.- 2019ko soldata-igoera.- Jarraian, gai honen inguruko 2019ko martxoaren 15eko erabaki-proposamenaren berri eman zaio Batzordeari; hau dio:

"AKORDIO PROPOSAMENA

AINTZAT HARTU DA.- 2019ko abenduaren 27an Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zela abenduaren 21eko 24/2018 Legea, sektore publikoko ordainsarien gaineko premiazko neurriak onesten dituen.

AINTZAT HARTU DA.- Errege Dekretu Lege horrek langileen 2019ko soldata-igoerak arautzen dituela, eta kasu honetan soldaten gehikuntza finko bat aurreikusten da, ekonomiaren hazkuntzari dagokion eguneko gehigarri batekin batera.

IKUSI DIRA.- EUDELEk emandako gomendioak, aipatutako 2019ko soldata-igoerari dagozkionak.

IKUSI DA.- 24/2018 Errege Dekretu Legeko 2.Bi artikulua, Udalbatza Osoari proposatu zaio honako ERABAKIA hartzea:

Lehenengoa.- Udaleko langileen 2019 ekitaldiko ordainsariak % 2,25 areagotzea, 2018ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean, 2019ko urtarrilaren 1eko ondoreekin.

Bigarrena.- Alkatetzaren ordainsariak ere areagotzea 2019 ekitaldirako, zenbateko berean, 2018ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuta.

Hirugarrena.- Aipatutako gehikuntzei aplikatu dakizkieken eta jaso ez diren atzeratutako zenbatekoak ordaintzea.

Laugarrena.- % 0,25eko gehikuntzari dagokionean, gaurko egunez ezezagun denez berau ezartzeko zehaztasuna, gehikuntza hau 2019ko urtarrilaren 1eko ondoreekin gehituko da.

Bosgarrena.- Aurrekontu-superabitaren arabeko gehikuntza osagarriari dagokionez, azterketa bat egitea aipatutako 3.Bi artikuluan aipatzen diren lege-formulak ezarri eta zenbateko horiek banatu ahal izateko.

Seigarrena.- Erabaki honen berri ematea ordezkari sindikalari eta Udaleko Kontu Hartzailletza eta Diruzaintzari

Arespalditzan.- ALKATEA.- Sin.: *Gentza Alamillo Udaeta "*

Gai hau Ogasuna, Funtzio Publikoa, Barne Erregimena eta Kontuak Informazio-batzordearen irizpenera eraman zen, 2019ko martxoaren 12an egindako ohiko bilkuran, eta bere aldeko txostena egin zen.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta aho batez erabaki du, bozketa arruntaren bidez, akordio proposamena onestea idatzia izan den moduan.

5º.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako udalaren eta Asociación Cultural Amigos de Etxaurren - Etxaurreneko Lagunak Elkartearen arteko hitzarmena, 2019.- Jarraian, udalbatzari 2019 urterako Aiarako udalaren eta Asociación Cultural Amigos de Etxaurren- Etxaurreneko Lagunak Elkartearen arteko lankidetz hitzarmena proposamenaren berri eman zaio. 2019. Honela dio:

"AIARAKO UDALAREN ETA ASOCIACIÓN CULTURAL AMIGOS DE ETXAURREN-ETXAURRENEKO LAGUNAK ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA. 2019

Arespalditzan, 2019ko martxoaren (a)n. .

HAUEK BILDU DIRA:

Alde batetik GENTZA ALAMILLO UDAETA jn., Aiarako Udaleko Alkate-udalburua, ekitaldi honen fede ematen duen M^a Del Carmen Rojo Pitillas and., Aiarako Udaleko idazkariak lagunduta.

Beste aldetik, Asociación Cultural Amigos de Etxaurren-Etxaurreneko Lagunak Elkarteko presidentea..

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoa Aiarako Udaleko Alkate-udalburua, toki-erakundearen ordezkaria, gaian gaitua eta trebea, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen arabera.

Bigarrena, Asociación Cultural Amigos de Etxaurren-Etxaurreneko Lagunak Elkartearen izenean eta bere ordezkartitzan, G-01525252 IFK zenbakiarekin.

*Bi aldeek elkarri aitortzen diote erabateko gaitasun juridikoa eta **Lankidetz Hitzarmen** hau emateko eta betetzeko lan egiteko erabateko gaitasuna, eta, horretarako*

ADIERAZTEN DUTE

I. Asociación Cultural Amigos de Etxaurren-Etxaurreneko Lagunak Elkarteak etekinik ateratzeko asmorik gabeko elkarteak dela, eta euren xede nagusia "Etxaurren" izeneko lekua, Menoio herrian, udalerriko eta inguruetako leku ezberdinetako pertsonen topaleku gisa sustatzea dela. Horretarako, irailean, Etxaurren Ermitaren ondoan antolatzen den jai herrikoa mantendu eta indartzen dute.

II.- Aiarako udalak adostu du udalerriko herri eta ermita ezberdinetan antolatzen diren kultura- eta jai-adierazpenei babesa ematea.

III.- Aplikazio-legedia zorrotz betez eta toki-erakundeei dagokien Lankidetzak Hitzarmenetan izen emateko aukeran erreparatuz, bi aldeek Lankidetzak Hitzarmena formalizatu dute.

ESTIPULAZIOAK

LEHENENGOA.- Hitzarmen honen xedea, Aiarako Udalaren aldetik, irailean Etxaurren Ermitaren inguruan antolatzen den jaia sustatzen eta indartzen laguntzea da

BIGARRENA.- Aiarako udalak gauzatu beharreko sustapen jardueraren edukia, aurreko atalean deskribatutako jardueraren gastuen diru-laguntzan zehazten da, Asociación Cultural Amigos de Etxaurren-Etxaurreneko Lagunak Elkarteak gauzatu.

HIRUGARRENA.- Administrazio honek jardueraren sustapenerako emango duen diru-laguntza goian deskribatutako jardueraren garapenak dituen gastuak abonatzera bideratuko da.

Diru-laguntza jardueren garapenean sortutako gastuen (justifikatuak) arabera kalkulatu da, Asociación Cultural Amigos de Etxaurren-Etxaurreneko Lagunak Elkarteak gai hauetarako jasotako beste laguntza posibleetatik lortutako diru-sarrerak deskontatuz.

Hitzarmen honi dagokion diru-laguntza, gehienez, urteko BOSTEHUN (500) EUROkoa izango da.

LAUGARRENA.- Urteko udal diru-laguntzaren zenbatekoa JUSTIFIKATZEKO (gehienez 500 €) zenbateko horri buruzko dokumentazioa aurkeztuko da:

a) Jasotako diru-laguntza guztien deklarazioa, bai erakunde publikoetatik bai pribatuetatik, diruz lagundutako jarduera finantzatzeko lortu direnak (formularioa erantsi da).

b) Foru Ogasuna eta Gizarte Segurantzak ordaindu izanaren ziurtagiria, edo, hala badagokio, presidentek sinatutako baimena Udalak erakunde horiei aipatutako baimenak eskatzeko.

c) Diruz lagundutako jardueraren honako dokumentazio hau:

- *Jardueraren gastuen eta diru-sarreraren balantzea.*
- *Jardueraren memoria (honako hauek adierazi behar dira: egikaritze-data, bertaratutako kideak, egikaritzaren balorazioa eta egindako ekitaldien azalpen laburrak).*
- *Jardueraren gastuen fakturak eta ordainketa frogagiriak.*

Lehenengo estipulazioan adierazitako baldintzak ez badira betetzen, ez da diru-laguntza emango eta aurretik abonatutako kopuruak itzultzeko prozedura abiaraziko da.

2020ko urtarrilaren 31rako hitzarmen honen laugarren estipulazioan eskatutako justifikazioa ez bada aurkezten, ez da diru-laguntza emango eta aurretik abonatutako kopuruak itzultzeko prozedura abiaraziko da.

Diru-laguntza hau ez da bateragarria izango urtero Udalaren deialdietan jasotako gainontzeko diru-laguntzekin.

BOSGARRENA. - Diru-laguntzan jasotako jarduerak egiteko epea, salbuespenen kasuan izan ezik, diruz lagundutako urtearen denbora-mugetara egokituko da (2019. urtea).

SEIGARRENA.- Diru-laguntza hau ordaintzeko modua jarraian adierazitakoa da: Aiarako Udalak adostutako diru-laguntza maximoaren % 80 ordainduko du behin hitzarmena sinatuta, Foru Ogasuna eta Gizarte Segurantza ordaindu izanaren ziurtagiriaren lehenengo ordainketa baino lehen jakinarazpena bidali aurretik. Gainerako % 20a hitzarmen honetako LAUGARREN klausulan adierazitako dokumentazioa aurkeztu ostean emango da.

Aiarako Udalak edonoiz eskatu ahalko du horri buruz beharrezkotzat jotzen du informazioa.

ZAZPIGARRENA.- Asociación Cultural Amigos de Etxaurren-Etxaurreneko Lagunak Elkarteak Aiarako Udalak egiten duen publizitate guztia bildu beharko du.

ZORTZIGARRENA.- Asociación Cultural Amigos de Etxaurren-Etxaurreneko Lagunak Elkarteak Hitzarmen honetan jasotako betebeharrak betetzen ez baditu, indarrean dagoen diru-laguntzei buruzko araudian aurreikusitako erantzukizun eta zehapen erregimena aplikatuko da.

Eta adostutakoarekin bat datozela frogatzeko, aldeek lankidetzaren hitzarmen honen hiru aleak sinatu dituzte, zuzenketarik edo urratzerik gabe, dokumentu hau osatzen duten 4 orrialdeetako bakoitzean, eta hitzematzen dute berau beteko dutela dokumentu honen goiburuan agertzen den lekuan eta egunean.

ALKATE-UDALBURUA- Sin.: - Gentza Alamillo Udaeta

Nire aurrean, IDAZKARI ANDREA- Sin.: - M^a Carmen Rojo Pitillas.

ASOCIACIÓN CULTURAL AMIGOS DE ETXAURREN-ETXAURRENEKO LAGUNAK ELKARTEKO PRESIDENTEA.- Sin.: - José Ignacio Mendia Ibarrola."

Halaber, udalbatzari 2019ko martxoaren 6ko Alkatetza-ebazpenaren proposamenaren berri eman zaio. Honako hau dio:

“EBAZPEN PROPOSAMENA

IKUSI DA.- Aiarako Udalak sustatu eta babestu nahi dituela udalerrian antolatzen diren kultura- eta jai-adierazpenak.

IKUSI DA.- Aiarako Udalaren eta Asociación Cultural Amigos de Etxaurren-Etxaurreneko Lagunak Elkartearen arteko lankidetzeta-hitzarmenaren xedea da Etxaurreneko ermita dela-eta irailean antolatzen diren jaiak sustatu eta indartzea.

AINTZAT HARTU DA.- 2019ko aurrekontuan, hitzarmen honek adierazten dituen gastuei aurre egiteko nahikoa diru dagoela.

Aurreko guztiagatik, Udalbatza Osoari proposatu zaio honako ERABAKI hau hartzea:

Lehenengoa:- Onestea Aiarako Udalaren eta Asociación Cultural Amigos de Etxaurren-Etxaurreneko Lagunak Elkartearen arteko lankidetzeta-hitzarmena, Etxaurreneko ermitaren ondoan irailean antolatzen diren jaiak sustatu eta indartzea xedea duena, 2019 ekitaldian.

Bigarrena:- Alkate-udalburuari ahalmena ematea, hitzarmena sina dezan.

Hirugarrena:- Asociación Cultural Amigos de Etxaurren-Etxaurreneko Lagunak Elkarteari erabaki honen berri ematea.

Arespalditzan.- ALKATEA- Sin.: *Gentza Alamillo Udaeta.*"

Euskara eta Hezkuntza, Kultura, Kirolak eta Gazteria Informazio-batzordeak gai honen aldeko txostena egin zuen, 2019ko martxoaren 12ko ohiko bilkuran.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta aho batez adostu da, ohiko bozketan, transkribatutako ebazpen proposamena idatzi den moduan onestea.

6º.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta Etxaurren Ikastolako Gurasoen Elkartearen arteko lankidetzeta-hitzarmena, Etxaurren ikastolako laguntza psikopedagogikoko zerbitzua eta bi urteko gelaren (laguntzailea) zerbitzua finantzatzeko. - Jarraian, Aiarako Udalak eta Etxaurren Ikastolako Guraso Elkartek 2019rako duten lankidetzeta-hitzarmenaren berri eman zaio Batzordeari. Honako hau dio hitzarmenak:

“AIARAKO UDALAREN ETA ETXAURREN IKASTOLAKO GURASOEN ELKARTEAREN ARTEKO 2019 LANKIDETZA-HITZARMENA, ETXAURREN IKASTOLAKO LAGUNTZA PSIKOPEDAGOGIKOKO ZERBITZUA ETA BI URTEKO GELAREN (LAGUNTZAILEA) ZERBITZUA FINANTZATZEKO

Aiarako udaletxean, Arespalditzan,

HAUEK BILDU DIRA:

Alde batetik,

Beste aldetik,

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoak Aiarako Udaleko alkate-udalburu gisa, toki erakunde honen izenean eta ordezkartzan, horretarako gaitasuna eta eskumena baitu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearekin bat etorritz.

Bigarrena, Etxaurren Ikastolako Guraso Elkartearen ordezkari, G01118769 IFK zenbakia duena.

*Bi aldeek elkarri aitortzen diote erabateko gaitasun juridikoa eta **Lankidetzaren Hitzarmen** hau emateko eta betetzeko lan egiteko erabateko gaitasuna, eta, horretarako*

ADIERAZTEN DUTE

***I.-** Etxaurren Ikastolako Guraso Elkarteak gizarte- eta heziketa-lan garrantzitsua egiten duela, Etxaurren ikastolak (bere erreferentzia-zentroa) egiten duen heziketa lana betetzeko, hobetzeko eta zabaltzeko helburuarekin. Horretarako, Aiarako Udalaren laguntza dauka.*

***II.-** Etxaurren Ikastolako Guraso Elkarteak, Aiarako Udalaren laguntzarekin, egiten duen eginkizun nagusietako bat da Etxaurren ikastolako laguntza psikopedagogikoko zerbitzua eta bi urteko gelaren zerbitzua finantzatzea, hori egiteko beharrezko pertsonal teknikoa kontratatuz (psikologo bat eta laguntzaile bat).*

***III.-** Ikusita gehiago osoz beharrezkotzat jotzen dela II. puntuan aipatutako zerbitzua ematen jarraitzea, Aiarako Udalak - Etxaurren Ikastolako Guraso Elkartearen adostasunarekin - erabaki du aipatutako puntuan azaldutako helburuarekin laguntza ekonomikoa arautzea, Aiarako Udalaren eta Etxaurren Ikastolako Guraso Elkartearen arteko 2019. urteko diru-laguntza arautzen duen hitzarmen honen bidez.*

***IV.-** Aplikatzekoa den legeria zehatz-mehatz betez, eta Lankidetzaren Hitzarmenak sinatzeko Toki Erakundeek duten eskumenari jarraiki, bi aldeek Lankidetzaren Hitzarmen hau formalizatzen dute, eta jarraian adierazitakoak bete beharko dituzte*

ESTIPULAZIOAK

***Lehenengoa:** Hitzarmen honen helburua ETXAURREN IKASTOLAKO GURASO ELKARTEARI diru-laguntza ematea da, Etxaurren ikastolako laguntza psikopedagogikoko zerbitzua eta bi urteko gelaren (laguntzailea) zerbitzua kontratatzeko 2019an; izan ere, bi zerbitzuak izatea beharrezkotzat jotzen da oinarritzko gizarte- eta hezkuntza-arreta eman ahal izateko Aiara udalerriko Etxaurren ikastolaren eskola-komunitateari.*

***Bigarrena:** Hitzarmen honetan AIARAKO UDALAREN eta ETXAURREN IKASTOLAKO GURASO ELKARTEAREN arteko lankidetzaren zehazten 2019rako, Etxaurren ikastolako*

laguntza psikopedagogikoko zerbitzuari eta bi urteko gelaren (laguntzailea) zerbitzuari dagokiena, honako funtzioa hauek emateko:

Laguntza psikopedagogikoko zerbitzua (psikologoa):

- *Irakasleekin*
 - *Laguntza gelaren koordinatzailea zentroko orientatzailearekin*
 - *Koordinazioa logopedarekin*
 - *Koordinazioa PTrekin (pedagogia terapeutikoa)*
 - *Koordinazioa Berritzeguneko orientatzailearekin*
 - *Ikasle bakoitzaren jarraipena egiteko, psikologoa zentroko irakasle bakoitzarekin eta PTrekin koordinatzen da astean behin*
 - *Irakasleen formakuntza (emozioak, gatazken konponketa)*
 - *Orientazio psikologikoak irakasleei, bai kasu espezifikoei begira bai klase osoarentzat orokorrean.*
 - *Tutoretzetan lan egiteko materialak erraztea (afektibitatea, emozioak, arlo psikologikoa...)*
 - *Ikasleen jarraipenari buruz egiten diren bilera guztietan parte hartzea irakasleekin batera*

- *Ikasleekin*
 - *Ikasleen behaketa, diagnostikoa, esku-hartzea (beharrezkoa bada) eta jarraipena (eskualdeko orientatzailearekin batera)*
 - *Ikasleen orientazioa*
 - *Proba psikologikoak egitea bost urteko gelako ikasleei, lehen hezkuntzako bigarren mailakoei, laugarren mailakoei, seigarren mailakoei eta horren beharra duten ikasleei.*

- *Familiekin*
 - *Familientzako arreta zuzena*
 - *Orientazio lanak*
 - *Gurasoei bideratutako hitzaldien antolaketa eta koordinazioa (hezkuntza sexual afektiboa, gatazken konponketa...)*
- *Beste funtzio batzuk*
 - *Zuzendaritza taldeko kidea, irakaslea ez dena*
 - *Amara Berriko eta Durangoko zuzendaritza taldeen bileretan parte hartzea*
 - *Amara Berriko topaketetan parte hartzea*
 - *Berritzegunek emandako formakuntzan parte hartzea*

Bi urteko gelako zerbitzua (laguntzailea):

- *Ikasleen hezkuntza- eta higiene-beharrez arduratzea*
- *Afektibitate- eta mugikortasun-beharrez arduratzea*
- *Irakasleei laguntzea hezkuntza-proiektuan, bai klasean bai klasetik kanpo egiten diren jardueretan (patioa, psikomotrizitate gela, audiobisualak...)*
- *Pixoihalak aldatzea eta konketa eta komuna nola erabili irakasten hastea*
- *Oinarrizko funtzioetan hezteak, hala nola orrazten; zapatak, amantalak eta jakak jartzen; paperontzia erabiltzen eta gela biltzen jolastu eta lan egin ostean.*
- *Autonomia lantzea eta jateko orduan izan behar dituzten ohitura egokiak irakastea (ondo eseri, mahai-tresnak erabili, eskuak eta ahoa garbitu...)*

- *Ikasleak prestatzea siesta ordurako eta lokartu arte laguntzea*

Hitzarmen hau 2019. urterako sinatu da, 2019ko urtarrilaren 1etik 2019ko abenduaren 31ra bitartean.

Hirugarrena: *Udalak ETXAURREN IKASTOLAKO GURASO ELKARTEArentzat onartzen duen urteko ekarpen ekonomikoa dagozkion udal aurrekontuetan islatuko da. Hilero beharrezko kopurua ordainduko da, Foru Ogasuna eta Gizarte Segurantzza ordaindu izanaren ziurtagiriaren lehenengo ordainketa aurkeztu eta Etxaurren Ikastolako Guraso Elkarteak zerbitzua ematen duten langileei ordaindu eta gero: laguntza psikopedagogikoko zerbitzuko psikologoa eta bi urteko gelako laguntzailea.*

2019. urteari dagokion ekarpen ekonomikoa honako hau izango da:

- *Laguntza psikopedagogikoko zerbitzuko psikologoa
(1.500,00 € kontsignan utzi, egon daitezkeen bajak betetzeko)
36.36.200,27 €*
- *Bi urteko gelako laguntzailea
(1.500,00 € kontsignan utzi, egon daitezkeen bajak betetzeko)
21.21.387,24 €*

2019ko EKARPENA GUZTIRA:

57.587,51 €

3.000,00 -ko kopurua kontsignan utziko da 2019 Hitzarmenean bi postuetako bajak betetzeko, oso-osorik erabili ahalko da (horretarako beharra badago) postu bateko edo bietako bajak sorrarazitako gastuari aurre egiteko, behin ziurtatuta ez dela beharrezkoa kontsignan utzi zen posturako.

Urteko Hitzarmenean baja posibleei aurre egiteko kontsignan utzitako kopurura bere funtzioa betetzeko nahikoa ez bada, Aiarako Udalak gertakari horri aurre egiteko aukera aztertuko du, betiere aurrekontu nahikoa badago.

Laugarrena: *Hitzarmena sinatzen den momentutik, ETXAURREN IKASTOLAKO GURASO ELKARTEAk Aiarako Udalaren babesa aipatuko du komunikabideetan diruz lagundutako bi zerbitzuei buruz zabaltzen duen informazioan.*

Bosgarrena: *ETXAURREN IKASTOLAKO GURASO ELKARTEAk, diruz lagundutako urtearen hurrengo urteko urtarrilaren 31 baino lehen, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du Aiarako Udaleko Erregistro orokorrean:*

- Jasotako diru-laguntza guztien deklarazioa, bai erakunde publikoetatik bai pribatuetatik, hitzarmen honen bidez diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko lortu direnak.*
- Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean daudela egiaztatzen duen agiria.*

Diruz lagundutako jardueraren honako dokumentazio hau:

- Diruz lagundutako ekitaldiaren gastuen eta diru-sarreraren balantzea, ekitaldi horretan bi langileei ordaindutako nomina guztien kopiarekin batera.
- KA-1 eta KA-2 kopiak
- Diruz lagundutako urte naturalaren jarduera-memoria
- Egindako jarduera bakoitzaren ebaluazio-fitxa eta jarduera horiek egin izanaren zinpeko aitortpena. Eta adostutakoarekin bat datozela frogatzeko, aldeek lankidetzaren hitzarmen honen hiru aleak sinatu dituzte, zuzenketarik edo urratzerik gabe, dokumentu hau osatzen duten orrialdeetako bakoitzean, eta hitzematen dute berau beteko dutela dokumentu honen goiburuan agertzen den lekuan eta egunean.

Aiarako Udaleko alkate-udalburua

Aiarako Udaleko Etxaurren Ikastolako Guraso Elkarteko presidentea

Nire aurrean, idazkari andrea”

Halaber, udalbatzari 2019ko martxoaren 6ko Alkatetza-akordioaren berri eman zaio. Honako hau dio:

“EBAZPEN PROPOSAMENA

IKUSI DA.- *Aiarako Udalaren eta Etxaurren Ikastolako Gurasoen Elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmena, Etxaurren ikastolako laguntza psikopedagogikoko zerbitzua eta bi urteko gelaren (laguntzailea) zerbitzua finantzatzeko.*

AINZAT HARTU DA.- *2019ko aurrekontuan, hitzarmen honek adierazten dituen gastuei aurre egiteko nahikoa diru dagoela.*

Aurreko guztiagatik, Udalbatza Osoari proposatu zaio honako ERABAKI hau hartzea:

Lehenengoa.- *Onestea Aiara Udalaren eta Etxaurren Ikastolako Gurasoen Elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmena, Etxaurren ikastolako laguntza psikopedagogikoko zerbitzua eta bi urteko gelaren (laguntzailea) zerbitzua finantzatzeko.*

Bigarrena.- *Alkate-udalburuari ahalmena ematea, hitzarmena sina dezan.*

Hirugarrena.- *Etxaurren Ikastolako Guraso Elkarteari ebazpen honen berri ematea.*

Arespalditzan.- ALKATEA- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.”

Euskara eta Hezkuntza, Kultura, Kirolak eta Gazteria Informazio-batzordeak gai honen aldeko txostena egin zuen, 2019ko martxoaren 12ko ohiko bilkuran.

Nerea Goti Vale zinegotzi andreak (EH-BILDU) galdetu du ea dagoeneko kalkulatu den iazko Hitzarmenean adostutako zenbatekoarekin laguntzaileari soldata igotzeko egindako eskaera bete ahalko den.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ/PNV) erantzun du nominak izapidetzen dituen enpresa gure nominak izapidetzen dituen enpresa bera den arren, beste bezero bat denez, ez daukagula datu zehatza, baina uste da nahikoa izango dela.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta aho batez adostu da, ohiko botaketan, transkribatutako ebazpen proposamena idatzi den moduan onestea.

7º.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta Etxaurren ikastolako Gurasoen Elkartearen arteko lankidetzaz hitzarmena, eskolaz kanpoko jardueren gastuak ordaintzeko.- Jarraian, Aiarako Udalak eta Etxaurren Ikastolako Gurasoen Elkarteak 2019rako duten lankidetzaz hitzarmenaren berri eman zaio Batzordeari. Honako hau dio hitzarmenak:

*AIARAKO UDALAREN ETA ETXAURREN IKASTOLAKO GURASOEN
ELKARTEAREN ARTEAN EGINIKO LANKIDETZA HITZARMENA*

Arespalditzan, 2019ko xxxxxxxx-ren xx(a)n

HAUEK BILDU DIRA:

Alde batetik, _____, -Aiarako udaleko alkate-udalburua, Aiarako udaleko idazkariaren laguntzarekin, ekitaldiaren fede ematen duena.

Beste aldetik, _____, adin nagusiko, _____, zenbakiko NANaren titularra eta herritarra, Etxaurren Ikastolako Gurasoen Elkartearen presidentea.

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoak Aiarako Udaleko alkate-udalburu gisa, toki erakunde honen izenean eta ordezkari gisa, horretarako gaitasuna eta eskumena baitu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearekin bat etorriz.

Bigarrena, aipatu elkartearen izenean eta ordezkari gisa. Elkarteak berak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatu du bere izaera eta ordezkari gaitasuna, aktaren fotokopia aurkeztu baitu, eta horren bidez aukeratu eta izendatzen baita Etxaurren eskolako IGEaren presidentea (hitzarmen honetan I. eranskin gisa erantsi da).

Bi aldeek elkarri aitortzen diote erabateko gaitasun juridikoa eta Lankidetzaz Hitzarmen hau emateko eta betetzeko lan egiteko erabateko gaitasuna, eta, horretarako

ADIERAZTEN DUTE

I.- Aiarako Udalak, udalerriko kultur eta kirol ekintzak gauzatzen direla begiratzeko eta sustatzeko duen interes publikoan arreta jarri, IGEari Hitzarmen honetan zehazten diren baliabideak eta lankidetzaz erraztuko dizkio bere helburuak lortze aldera.

II.- Udalak interes berezia du eskolaz kanpoko ordutegian jarduerak egiteari eusteko eta sustatzeko, hau da, eskolaz kanpoko jarduerak deiturikoak.

III.- Etxaurren IGE deituriko elkarteak gizarte eta kirol arloko eginkizun garrantzitsua gauzatzen ari da, udalerrian kultura- eta kirol-jarduerak asko sortzen baitu,

bereziki, haurren artean. Arte- eta kirol-jarduerak sustatzen ditu haurren artean, ikastetxeko ohiko jardueretatik kanpo.

IV.- Etxaurren IGEak beti erakutsi du interes handia Aiarako Udalarekin lankidetzan aritzeko umeekin lotura duten kultur eta kirol ekintzak antolatzeko orduan.

V.- Aiarako Udalak, bultzatzen diren jardueren baitan, erabaki du udalerriko umeentzako kultur eta kirol jarduerak sustatzea, eta, era berean, erabaki du sustapen hori Hitzarmen honen bidez gauzatzea; izan ere, udalerrian erroldatuta dauden eta 2019-2020 ikasturterako Etxaurren Eskolan eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzen duen ikasle bakoitzaren gastuen diru-laguntzak arautzen ditu, ikastetxearen eskolaz kanpoko jardueren egutegiaren arabera.

VI.- Aplikatzekoa den legeria zehatz-mehatz betez, eta Lankidetzak Hitzarmenak sinatzeko Toki Erakundeek duten eskumenari jarraiki, bi aldeek Lankidetzak Hitzarmen hau formalizatzen dute, eta jarraian adierazitakoak bete beharko dituzte

ESTIPULAZIOAK

LEHENENGOA.- Hitzarmen honen xedea da Aiarako Udalak Etxaurren ikastetxeko eskolaz kanpoko kultur eta kirol ekintzak bultzatzea eta sustatzea, "Etxaurren IGE"-ren bidez.

BIGARRENA.- Aiarako Udalak gauzatu beharreko sustapen jardueraren edukia egin beharreko eskolaz kanpoko jarduerak sortzen dituen gastuen arretan eta horien zati bat ordaintzean oinarritzen da.

Jarduera gauzatzeko beharrezkoa den materiala elkartearen kontura izango da. 2019-2020 ikasturterako gehienezko diru-laguntza 2.200,00 €-koa izango da.

HIRUGARRENA.- Diru-laguntza jasoko duen jarduera gauzatzeko epea ikastetxeko egutegi ofizialarekin bat etorriko da, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak argitaratu eta horren berri emango du Arabako Lurralde Ordezkaritzaren bidez. Egutegi hori 2013ko ekainean amaituko da.

LAUGARRENA.- Diru-laguntza hau ordaintzeko modua jarraian adierazitakoa da: Aiarako Udalak adostutako diru-laguntza maximoaren % 80 ordainduko du behin hitzarmena sinatuta, Foru Ogasuna eta Gizarte Segurantzak ordaindu izanaren ziurtagiriaren lehenengo ordainketa baino lehen jakinarazpena bidali aurretik. Gainerako % 20a hitzarmen honetako hurrengo klausulan adierazitako dokumentazioa aurkeztu ostean emango da.

BOSGARRENA. - Urteko udal diru-laguntzaren zenbatekoa JUSTIFIKATZEKO (gehienez 2. 200,00 €) zenbateko horri buruzko dokumentazioa aurkeztuko da:

a) Jasotako diru-laguntza guztien deklarazioa, bai erakunde publikoetatik bai pribatuetatik, hitzarmen honen bidez diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko lortu direnak.

b) Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean daudela egiaztatzen duen agiria.

c) *Diruz lagundutako jardueraren honako dokumentazio hau:*

- *Diruz lagundutako ekitaldiaren gastuen eta diru-sarreraren balantzea*
- *Diruz lagundutako ekitaldiaren jarduera-memoria (egindako jarduera bakoitzeko ebaluazio-fitxa eta egin izanaren zinpeko aitortpena)*
- *Bukatutako urtearen memoria ekonomikoa (jardueren gastuak +funtzionamendu gastuak), bere gastuekin eta diru-sarrerekin. Horrez gain, beharrezko fakturak eta ordainagiriak aurkeztu beharko dira.*

Lehenengo estipulazioan adierazitako baldintzak ez badira betetzen, ez da diru-laguntza emango eta aurretik abonaturako kopuruak itzultzeko prozedura abiaraziko da.

2020ko irailaren 30erako hitzarmen honen laugarren estipulazioan eskatutako justifikazioa ez bada aurkezten, ez da diru-laguntza emango eta aurretik abonaturako kopuruak itzultzeko prozedura abiaraziko da.

Diru-laguntza hau ez da bateragarria izango urtero Udalaren deialdietan jasotako gainontzeko diru-laguntzekin.

SEIGARRENA.- Etxaurren IGEk jarduera honetarako Aiarako Udalaren lankidetzak egiten duen publizitate guztia bildu beharko du.

ZAZPIGARRENA.- Etxaurren IGEak Hitzarmen honetan jasotako betebeharrak betetzen ez baditu, indarrean dagoen diru-laguntzei buruzko araudian aurreikusitako erantzukizun eta zehapen erregimena aplikatuko da.

Eta adostutakoarekin bat datozela frogatzeko, aldeek lankidetzaren hitzarmen honen hiru aleak sinatu dituzte, zuzenketarik edo urratzerik gabe, dokumentu hau osatzen duten orrialdeetako bakoitzean, eta hitzarmenaren dute berarekin beteko dutela dokumentu honen goiburuan agertzen den lekuan eta egunean.

ALKATE-UDALBURUA, Sin.: ETXAURREN IGEko PRESIDENTE ANDREA,
Sin.:

Nire aurrean, idazkaria, Sin.: "

Halaber, udalbatzari 2019ko martxoaren 6ko Alkatetza-akordioaren berri eman zaio. Honako hau dio:

“EBAZPEN PROPOSAMENA

IKUSI DA.- Airako Udalak duen interes publikoa udalerrin honetan kultur eta kirol jardueren praktika mantentzeko eta sustatzeko.

IKUSI DA.- Aiarako Udalak eta Etxaurren Ikastolako Gurasoen Elkarteak 2019rako duten lankidetzaren hitzarmenerako proposamena, eskolatik kanpo egiten diren jardueren gastuak finantzatzeko, eskolaz kanpoko jardueraren izenekoak (2019-2020 ikasturtea).

AINTZAT HARTU DA.- 2019ko aurrekontuan, hitzarmen honek adierazten dituen gastuei aurre egiteko nahikoa diru dagoela.

Aurreko guztiagatik, Udalbatza Osoari proposatu zaio honako ERABAKI hau hartzea:

Lehenengoa.- Aiarako Udalak eta Etxaurren Ikastolako Gurasoen Elkarteak 2019rako duten lankidetzeta-hitzarmenerako proposamena onestea, eskolatik kanpo egiten diren jardueren gastuak finantzatzeko, eskolaz kanpoko jarduera izenekoak (2019-2020-2020 ikasturtea).

Bigarrena.- Alkate-udalburuari ahalmena ematea, hitzarmena sina dezan.

HIRUGARRENA.- Etxaurren Ikastolako Guraso Elkarteari ebazpen honen berri ematea.

Arespalditzan.- ALKATEA- Sin.: *Gentza Alamillo Udaeta.*"

Euskara eta Hezkuntza, Kultura, Kirolak eta Gazteria Informazio-batzordeak gai honen aldeko txostena egin zuen, 2019ko martxoaren 12ko ohiko bilkuran.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta aho batez adostu da, ohiko bozketan, transkribatutako ebazpen proposamena idatzi den moduan onestea.

8º.- Valle de Llanteno arte-eskola diru-laguntza justifikatzeko interpretaziozko irizpidea argitzea, 2018 ekitaldian- Udalbatzari jakinarazi zaio, Batzordean adierazi zen bezala, idazkari kontu-hartzailearekin interpretaziozko desadostasun bat egon dela, Valle de Llanteno arte-eskolari 2018ko ekitaldian emandako diru-laguntzaren justifikazioari dagokionez; hain zuzen, ez bada heltzen Aiarako Haranean erroldatutako parte-hartzaileen gutxieneko kopurura.

Euskara eta Hezkuntza, Kultura, Kirolak eta Gazteria Informazio-batzordeak, 2019ko martxoaren 12ko ohiko bilkuran, aldeko txostena egin zuen Udalbatzak iazko erabakia aplikatzeari buruz, 2018 ekitaldiari zegokion diru-laguntza justifikatzeko. Halaber, hainbaketa irizpidea aplikatuko da Aiarako Haranean erroldatutako zortzi pertsona ez daude taldeetan.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta aho batez adostu du, ohiko bozketan, Valle de Llanteno arte eskolaren diru-laguntzaren justifikazioan aplikatu behar den interpretaziozko irizpidea argitzeko, 2018 ekitaldian, hainbaketa irizpidea aplikatzeko Aiarako Haranean erroldatutako zortzi pertsona ez daude taldeetan.

9º.- Alkatetza Dekretu hauen berri ematea: Jarraian, udalbatzari 2019/82 eta 2019/115 artean dauden Alkatetza Dekretuen berri eman zaio, biak barne, eta horien helburua, laburbilduz, honako hau da:

2019/82 ALKATETZA DEKRETUA.- Murgako Administrazio Batzarra.- Argiztatze publikoan luminariak aldatzeko obretarako udal lizentzia ematea.

2019/83 ALKATETZA DEKRETUA.- G.M. H.- Etxebizitzan terraza konpontzeko obrak bukatzeko luzapena ematea.

2019/84 ALKATETZA DEKRETUA.- Ugarteko, SL.- EDAR-Otazu espedientearen dokumentazioaren luzapena ematea.

2019/85 ALKATETZA DEKRETUA.- Nekazaritza plastikoak biltzeko kontratu esleitzea 2019ko otsaila-ekaina

2019/86 ALKATETZA DEKRETUA.- AIARAKO ADMINISTRAZIO BATZAK.- 2018ko obrak egiteko gastuak ordaintzeko eta diru-laguntzak murrizteko agindua.

2019/87 ALKATETZA DEKRETUA.- AIARAKO ADMINISTRAZIO BATZAK.- 2018ko ordainsari teknikoen gastuak ordaintzeko eta diru-laguntzak murrizteko agindua.

2019/88 ALKATETZA DEKRETUA.- J.L. B. G.- Etxebizitzako fatxadan junturak jartzeko obretarako udal lizentzia ematea.

2019/89 ALKATETZA DEKRETUA.-J.G. B.- Obrak geldiarazteko agindua eta asaldatutako ordena publikoa berrezartzeko espedientea.

2019/90 ALKATETZA DEKRETUA.- JA.B.C. Kontratua amaitzeagatiko nominaren ordainketa onestea.

2019/91 ALKATETZA DEKRETUA.- Aiarako Kuadrilla. Gastu orokorrak eta bestelakoak ordaintzeko ekarpen ekonomikoa, 1/2019.

2019/92 ALKATETZA DEKRETUA.- Aiarako Kuadrilla. Hondakinak kudeatzeko ekarpen ekonomikoa, 1/2019.

2019/93 ALKATETZA DEKRETUA.- Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren 2019ko zerga-errola onestea.

2019/94 ALKATETZA DEKRETUA.- Etxaurren ikastola. Bi urteko gelako talde psikopedagogiko laguntzailearen nominak ordaintzea, 2019ko urtarrila.

2019/95 ALKATETZA DEKRETUA.- Elkarkidetzaren Pentsioak.2019ko otsaileko faktura onestea.

2019/96 ALKATETZA DEKRETUA.- Eudel 2019 bazkide kuotaren ordainketa onestea.

2019/97 ALKATETZA DEKRETUA.- A.G. L. Laudioko udal aparkalekutik sortutako gastuen ordainketa.

2019/98 ALKATETZA DEKRETUA.- J.A. G. A.- Administrazio espedientea jendaurrean jartzea.

2019/99 ALKATETZA DEKRETUA.- J.U. H.- Arespalditzan igerilekuak okupatzeko eta erabiltzeko udal lizentzia ematea.

2019/100 ALKATETZA DEKRETUA.- EUDEL. Mintegi batean izena emateko eta matrikulatzeko ordainketa onestea.

2019/101 ALKATETZA DEKRETUA.- Langileen eta alkatearen hileko nominei buruzko txostena onestea, 2019ko otsaila.

2019/102 ALKATETZA DEKRETUA.- Udalbatzako kideei ekarpen ekonomikoa egitea, 2019ko otsaila.

2019/103 ALKATETZA DEKRETUA.- Partidu politikoei ekarpen ekonomikoa egitea, 2019ko otsaila.

2019/104 ALKATETZA DEKRETUA.- Onestea F/2019/2 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.

2019/105 ALKATETZA DEKRETUA.- M.C. U. M.- Egindako obren eraikuntza eta eraisketa hondakinen kudeaketagatik ordaindutako fidantzaren itzulera ezeztatzea.

2019/106 ALKATETZA DEKRETUA.- Murgako Administrazio Batza.- Obrak finantzatzeko luzapena emateko eskaria ezeztatzea.

2019/107 ALKATETZA DEKRETUA.- TG. Gizarte Segurantzaren. 2019ko urtarrileko kuota ordaintzea.

2019/108 ALKATETZA DEKRETUA.- M.D. S.- B motako armen txarteleko 4.2 kategoriako bigarren armaren ikuskapena.

2019/109 ALKATETZA DEKRETUA.- B.B. B. - 2018/580 Dekretuan adierazitako epeak luzatzeko eskaria ezeztatzea.

2019/110 ALKATETZA DEKRETUA.- NL. H. G.- Baja-espedientea, biztanleen erroldan behar bezala inskribaturik ez egoteagatik.

2019/111 ALKATETZA DEKRETUA.- V.R. M.- Obretarako udal lizentzia ematea lursailean sartzeko barrera aldatzeko.

2019/112 ALKATETZA DEKRETUA.- L.U. S.- Obretarako udal lizentzia ematea Zuazan eraikina finkatzeko.

2019/113 ALKATETZA DEKRETUA.- I.P. V. Udalbatzako kideen mugikortasun gastuak ordaintzea.

2019/114 ALKATETZA DEKRETUA.- Erregistratu fakturak onestea (170etik 220ra, biak barne).

2019/115 ALKATETZA DEKRETUA.- Tramame, Remai eta Eusko Jaurlaritza.- Dekretua berritzeko administrazio espedientearen ebazpena jakinaraziz. Dekretu horren bidez jardueralizentziak berritu ziren.

Nerea Goti Valle zinegotzi andreak 2019/99 Dekretuari buruz galdetu du. "J. U. H. – Arespalditzan igerilekuak okupatzeko eta erabiltzeko udal lizentzia ematea.". Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ/PNV) erantzun du igerileku pribatu baterako lizentzia dela.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

10º.- Eskaerak eta galderak.- Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ/PNV) adierazi du Tramame y Remai enpresak jarritako errekursoari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak adostutako ebazpena jakinarazi digutela. Alegazio guztiak balioetsi ditu eta integratutako ingurumen baimena kendu dio; hortaz, jarduera egiteko baimenik gabe geratu dira. Horren ondorioz, dagoeneko eman da jarduera-lizentziak berritzeko dekretua. Azaldu du aztertzen ari direla nola egin instalazioen itxiera fisikoa, eta Murgako Administrazio Batzari horren berri eman zaiola.

Josu Artetxe Arana zinegotzi jaunak (EH-BILDU) honako gai honi buruzko erantzuna eskatu du: zergatik gobernu taldeak ez du laguntza ematen irakaskuntza euskaraz % 100ean doan izateko.

Responde el Sr. Alcalde, D. Gentza Alamillo Udaeta (EAJ/PNV), que todos han gobernado, y por tanto se habían tenido oportunidades de llegar a la gratuidad total de la enseñanza del euskera. Manifiesta que no obstante, se puede ir mejorando, y le consta que por parte del Gobierno Vasco ya se están haciendo movimientos, es HABE el que informa. Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ/PNV) erantzun du guztiek gobernatu dutela, eta, horregatik, ez dela aukerarik egon irakaskuntza euskaraz guztiz doan emateko. Hala ere, adierazi du hobetzen joan daitekeela, eta jakin du Eusko Jaurlaritzatik mugimenduak egiten ari direla, HABE jakinarazi duenez.

Nerea Gori Valle zinegotzi andreak (EH-BILDU) adierazi du garai horretan finantza-zuloak zeudela, eta, horien ondorioz, udalaren kudeaketa zailagoa zen, eta egin behar dena honako hau dela: bi hizkuntza ofizialak aitortzea, eta euskararen ezagutzan aurrera egitea biztanleengatik.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ/PNV) azpimarratu du ados dagoela, baina alkatetzara 2015ean heldu zenean, erabil zitekeen gerakina zegoen.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak amaitutzat eman du bilkura, hemeretziak eta bost minutu direnean, eta aztertutako gaiak eta ebatzitakoak egiaztatzeko, nik, idazkaria naizen aldetik, fede ematen dut, Arespalditzan, bi mila eta hemeretzi martxoaren hogeita batean.

O.E.
ALKATE-UDALBURUA,

IDAZKARIA,

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Sin.: M^a Carmen Rojo Pitillas.